



Donostia Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Auzoak eta Herritarren Partaidetzako Bulegoa
Negociado de Barrios y Participación Ciudadana

Ijentea, 1 - Tel. 943481356 - 943481368 - 943481000 - Faxe 943481661 - E.mail: udala_partaidetza@donostia.org
20003 Donostia-San Sebastián

Donostia, 12 de Marzo de 2003

Estimados amigos y amigas:

Tal y como quedamos, os enviamos tanto el Acta de la reunión del 27 del mes pasado, como el Convenio. Ambos documentos son borradores y nos gustaría hacer algunas indicaciones al respecto:

1. El Acta se envía sin firmar, a la espera de que las Asociaciones presentes en la reunión la revisen. Si no hay ninguna modificación, se firmará y se os enviará el ejemplar definitivo, tanto en euskara como en castellano.

Os proponemos que la firmen las personas que hicieron de portavoces el día de la reunión para hacerlo de una forma más sencilla.

2. En cuanto al Convenio, os pedimos que lo reviséis, y que presentéis las consideraciones oportunas en una reunión que se organizará a tal efecto. En la misma se tomará nota de vuestras aportaciones, de manera que podamos llegar a acordar un Convenio que se firmará en fechas posteriores.

Para todo ello os convocamos para el día 31 de Marzo, a las 19, 00 h en Casa Cultural Casares.

Gracias y hasta pronto,

Técnica del Barrios y Participación
Ciudadana

Equipo Técnico Del Plan de Desarrollo
Comunitario

Eva Salaberría

Elisabete Arrieta
Arantxa Ferreras
Mari Mar Jiménez

Auzoak eta Herritarren Partaidetzako Bulegoa
Negociado de Barrios y Participación Ciudadana

Ijentea, 1 - Tel. 943481356 - 943481368 - 943481000 - Faxe 943481661 - E.mail: udala_partaidetza@donostia.org
20003 Donostia-San Sebastián

Donostia, 2003ko Martxoak 12

Lagunok, agur t' erdi:

Esan bezala, hemen gatozkizue bi dokumenturekin: alde batetik Otsailaren 27an egindako bileraren Akta eta bestetik Komenioa. Bi testuak zirriborroak dira eta aldeaz aurretik agerpen batzuk egin nahiko genizkizue:

1. Akta sinatu gabe bidaltzen zaizue, bileran egondako Elkarteen onarpenaren zain. Aldaketarik ez balitz, behin betiko alea bidaliko litzazueke, euskaraz eta gazteleraz.

Elkarte guzien sinadurak jasotzea errazteko, bileran bozeramaile izan zirenena nahikoa dela proposatzen dizuegu

2. Komenioari dagokionez, begiratu dezazuela eskatzen dizuegu eta gaiari erantzuteko, bilera batean egokiak iruditzen zaizkizuen azalpenak aurkeztea nahi dugu. Bertan, zuek esandakoa jasoko da, denen artean Komenio osatu eta lehen bait lehen sinatu dadin

Guzi horretarako Martxoaren 31ean, Casares Kultur Etxean izango den bilerara gonbidatzen zaituztegu

Eskerrik asko eta laister arte

Auzoak eta Herritarren
Partaidetzako Teknikaria

Eva Salaberría

Garapen Komunitarioko Taldea

Elisabete Arrieta
Arantxa Ferreras
Mari Mar Jiménez

DONOSTIAKO UDALAREN ETA ALTZAKO ELKARTEEN ARTEKO
LANKIDETZA-HITZARMENA
KOMUNITATEAREN GARAPENERAKO PLANAREN ESPARRUAN
(Zirriborroa)

Altzako Alkateordetzan, bi mila eta hiruko xxxxxxxxxxxxaren xxan

BILDURIK

BATETIK: Odón Elorza González, Donostiako Udaleko Alkatea, (Ijentea
kalea z/g. 20003 Donostia, I.F.K.: P- 2007400-A), Udalaren
izenean eta ordezkartzan.

ETA BESTETIK:

NIRE AURREAN: JUAN CARLOS ETXEZARRETA VILLALUENGA jn., DONOSTIAKO
UDAL TXIT GORENEKO Idazkari Nagusia, niri dagokidan Fede-ahalmena gauzatuz.

Bertan dira eta ondorengo aurrekariak azaldu dituzte,

AURREKARIAK:

Lankidetzeta-hitzarmen hau sinatzen duten Donostiako Udalak eta Altzako elkarteek
helburu eta konpromiso bat dute: Altzako Komunitatearen Garapenerako Planaren esparruan
proposatutako helburuak lortzeko ahaleginak bateratzea.

Komunitatearen Garapenerako Planaren azken helburua Altzako herritarren artean parte-
hartze handiagoa lortzea da, eta horrek inguru horretako bizi-kalitateari onura ekartzea.
Partaidetzaren bidez eta indarrak batuz, gizarte orekatsua, egituratuago eta solidarioago bat
erdiesteko aukera eskainiko digun prozesu bat eraikitzea da xedea, eta azken batean, herritarrago
izatea, proiektu komun batekin denok bat etortzea eta gure komunitatean ezinbestekoak garen
sentimendu hori ilusio handiagoz bizitzea.

Bi alderdien iritziz komenigarria da adostasun bat erdiestea, Komunitatearen
Garapenerako Planaren prozesua gauzatu eta bultzatzeko zeregin horretan zeresana duten
erakundeen eta udalaren arteko harremanak nolabait ere antolatuko dituen.

Prozesu dinamiko bati buruz ari gara, urratsez urratseko prozesu batean pixkanaka
konpontzen joango diren arazo jakinekin loturik eraikitzen ari diren forma batzuk taxutzen
dituena. Beraz, egunez egun eraiki behar da prozesu hori, bai Udalaren partetik eta bai
herritarren partetik ere.

Donostiako Udalak hitz eman du hirialdeak biziberritzeko Udal Departamentu desberdinetatik aurrera eramaten ari den plan osoaren esparruan garatuko duela Plan hori, Altzako bizilagunen bizi-baldintzak hobetzeko helburuz, proiektu anizkoitz eta ireki bati bultzada emanaz, alderdi guztiak modu koordinatu, bateratu eta parte-hartzaile batez jorratuko dituen, interesa duten pertsona guztiak parte hartzeko beren lekua aurkitzeko prozesuak eta ekintzak garatuz.

Aurreko hori guztia kontuan izanik, erakunde sinatzaileek aitortzen dute Altzako Komunitatearen Garapenerako Plana aurrera eramaten lagundu nahi dutela, eta horri begira, honako lankidetzak-hitzarmen hau gauzatzen dute, ondorengo baldintzekin bat etorriz

BALDINTZAK

Lehena.-

Lankidetzak-hitzarmen honen xedea Udalaren eta elkarte-antolamenduaren arteko harremana egituratzea da Altzako Komunitatearen Garapenerako Planaren prozesuan. Dokumentu honek, Plan horretan zeresana eta protagonismoa duten alderdien arteko adostasuna abiapuntutzat harturik, prozesuan burutu beharreko jardueretan bere gain hartuko diren erantzukizunak eta esleipenak zehaztu nahi ditu, elkarrizketa, gardentasuna, partaidetza eta adostasuna oinarritzat dituzten printzipioetatik abiatuta.

Bigarrena.-

Hitzarmen hau sinatu dutenek beren nahia eta konpromisoa adierazi dute Komunitatearen Garapenerako Planaren esparruan proposatutako helburuak lortzeko ahaleginak bateratu daitezzen. Plan honen oinarritzko helburuak ondokoak dira:

- Altxa auzoko bizilagunen partetik esku-hartze handiagoa lortzea, eta horrek haien bizi-kalitateari onura ekartzea.
- Altzako elkarte desberdinen artean, eta horien eta Donostiako Udalaren artean harreman biziak eta ohikoak osatzea.
- Prozesu anizkoitz eta bateratzaile bat eraikitzea, prozesuan parte hartzen duen komunitateak Altzako lurraldearekin identifikazio handiagoa lor dezan.
- Udalak, batetik, maila politikoan eta teknikoan, demokrazia parte-hartzaile baten bitartekoak bultzatu eta onuratzeko, eta bestetik, udal jardueren koordinazio handiagoa gauzatzea, gauzatu beharreko Proiektu hori orokorra eta bateratua kontsideratu dezaten.

Hirugarrena.-

Donostiako Udalak, eta zehazkiago, Auzoak eta Herritarren Partaidetzarako Bulegoak, Komunitatearen Garapenerako Plana gauzatzeko profesionalen talde bat kontratatatu du, eta alde aurretik hasitako prozesua kudeatzeaz arduratuko da urtebeteko epean, nahiz eta bi urtetara ere luzatu ahal izango den, laguntza teknikoaren kontratua esleitzen den egunetik aurrera kontatzen hasita (2002ko azaroa).

Talde hori Altzako Komunitatearen beste baliabide bat gehiago izango da, eta Komunitatearen Garapenerako Planaren protagonista komunitate osoa izango da, eta horrela, Elkartek, profesionalak eta pertsona partikularrek garrantzi berezia eta ordezkatu ezinezkoa dute prozesuaren osotasun horretan.

Laugarrena.-

Komunitatearen Garapenerako Planaren helburua erdiesteko, Komunitate hori sendotzeko ahaleginak egingo dira, eta horri esker:

- Bizi-baldintzak, hiri-ingurunea eta bertako zerbitzuak hobetuko dira, bizilagunen egungo nahiz etorkizuneko premiei erreparatuz.
- Premia handienak dituzten pertsona eta kolektiboak beharrezko arreta eskainiko zaie, beren egoera hobetzeko, eta proiektu kolektiboetan izan ditzaketen irtenbideak aztertuko dira.
- Altzako auzokide eta auzoaren arteko loturak bultzatu.
- Gazteak erabat garatu daitezela bultzatuko da, Altzaren etorkizunean protagonista aktibo bihurtzeko baldintzak erraztuz.
- Hirigintza mailan berregituraketak egin eta etxebizitzaren baldintzak hobetuko dira.

Testuinguru honetan garrantzitsua litzateke ondokoa:

- Lehendik dauden baliabideak hobetzea, hau da, horiek gehiago eta modu arrazoizkoago batez erabiltzea, horiek gainjarri daitezela eta bikoiztu daitezela eragotziz.
- Altzako komunitatearen potentzialak garatzea, Plan hau epe jakinetatik harantzago mantendu ahal izan dadin.

Bosgarrena.-

Altzako Komunitatearen Garapenerako Planaren esparruan proposatzen diren jardueraren arloak honako hauek dira:

- a) Kultura-Euskara.
- b) Kirolak.
- c) Hezkuntza- Prestakuntzak eta Lanekoa.
- d) Ingurumena.
- e) Aisialdia eta Denbora Librea.
- f) Parte-hartzea eta Elkartegintza.
- g) Gizartea.
- h) Hirigintza.

Prozesu parte-hartzaile eta dinamiko bat dela kontuan izanik, hasieran proposatutako esparru horiek berrikusi ahal izango dira, eta beharrezkoa bada, aldatu ere bai, une bakoitzeko errealitate zehatz horretara egokitzeko. Ez da baztertzen prozesu horretan beste esparru batzuk ere barneratzea, baldin eta Planeko protagonistek hala erabakitzen badute.

Seigarrena.-

Altzako Komunitatearen Garapenerako Planean aurreikusitako jarduerak diagnostiko orokor bat eginez hasiko dira. Horretarako, ondoko helburuak lortu nahi dira:

- Herritarren ongizatearekin loturik dauden esparru guztiak hobetzeko jarduerak sustatzea (Kultura-Euskara, Kirolak, Hezkuntza-Prestakuntzako eta Lanekoa, Ingurumena, Aisialdia eta Denbora Librea, Partaidetza-Elkartegintza, Gizartea, Hirigintza,...), gizarte-bazterkeriazko prozesuen aurkako borrokari eta prebentzio-ekintzei lehentasuna emanez.
- Herritarrek parte hartzeko dinamika bat sortzea eta horren inguruko prestakuntza eskaintzea, konpromiso zehatzak, epe jakinak eta definituz joango diren lorpen eskuragarriak finkatuz.
- Altzako bizilagunen hainbat kolektibok (Elkarteek, Profesionalek, Erakundeek eta Zerbitzuek) parte har dezatela sustatzea, atzemandako arazoetarako alternatiba adostuak bilatzeko gogoetan zorrotzasunez lan egin ahal izan dadin.
- Elkarten antolamendua dinamizatzea eta indartzea, elkarteak erantzukizun-kide eginez eta programak elkarrekin kudeatu daitezela eta egun dauden baliabideak hobetu daitezela ahalbidetuz.
- Elkarlanerako politika baten bidez, prozesu horretan zeresana duten pertsonen eta/edo taldeen artean harreman bizkorrak ahalbidetuko dituen Elkarte-sare bat sortzea.
- Herritarren partaidetzak egindako oharra kontuan har daitezela eta komunitate horri eragiten dioten erabakiak hartzeko orduan ezinbesteko elementutzat har daitezela lortu.

Zazpigarrena.-

Komunitatearen Garapenerako Planaren inguruko Hitzarmenak irauten duen bitartean, sinatzaileek hitz ematen dute ondokoa abiaraziko dutela:

- Batzorde bat, KGaren Planeko parte-hartzaileak ordezkaturik izango dituena, Hitzarmenean ezarritakoa beteko dela bermatuko duena eta abian jarritako KGerako prozesuak egin beharreko urratsak zehaztuko dituena, lan-metodologiaren jarraipen bat egiteaz gain, elkarlanaren eta dauden desberdintasunen bidez aurrera egiten lagunduko duena.
- Batzordearen Osaera honakoa izango da:
 - Udaleko Ordezkariak (Auzoak eta Herritarren Partaidetza eremua)
 - Altzako Elkartegintza arloko ordezkariak
 - Profesionalek ordezkariak
 - Pertsona partikularren ordezkariak
 - Komunitatearen Garapenerako Taldeko kide bat

Batzordea hilean behin bilduko da ondorengo eginkizunak burutzeko:

- Planaren jarraipena egin.
- Hurrenez hurren egin beharreko urratsak zehaztu eta koordinatu.
- Jarduera-proposamen berriak aurkeztu eta, azken batean, Batzordearentzat interesgarri izan daitezkeen gaiak proposatu.
- Aurreikusitako jarduera desberdinak burutuko direla ziurtatu.
- Jardueren etengabeko ebaluazio bat egin.

Ohiko bilerak egiteaz gain, Lankidetzak Hitzarmen hau sinatu duten alderdietako batek hala eskatzen duenean ere bilduko da Batzordea.

Zortzigarrena.-

Lankidetzak Hitzarmena gauzatzea

- Hitzarmen honen iraupena urtebetekoa da, eta epealdi hori amaitzen denean berrikusi egingo da.
- Batzordeak urteko ebaluazio bat egingo du Lankidetzak Hitzarmenaren garapenari buruz, egindako jarduera desberdinak kontuan izanik.
- Hitzarmen hau, alderdi sinatzaileetako edozeinek hala eskatzen badu, berrikusi ahal izango da, betiere elkarrekin ados egonez gero.

Eta hala a ger dadin eta bidezko ondorioak izan ditzan, hitzarmen hau i zenpetzen dute burualdean adierazitako lekuan eta egunean.